



8. Funtsezko jarduerak

Herriari eskaintzen diogun zerbitzuarekin, plastikoa bilduko dugu. Plastikoa hau birziklatuz, beste produktu batzuk lortzeko aukera paregabea izango dugu. Hala nola, plastikozko produktu berriak ekoizteko bidea erraztuko dugu. Horrela, plastikoa birziklatuko dugu, material honetaz eginiko produktuen kopurua murriztea lortuko dugu eta gainera, plastikozko produktu gehiago ekoiztea galaraziko dugu.

Honek guztiak ekarriko duen ondorioa guztiz onuragarria izango da bai guretzat eta bai geure ingurumenarentzat, ingurumenarekiko kalteak murriztuko ditugu eta. Izan ere, askok kontuan hartu ez arren, plastikoa da gaur egun gure ingurumena gehien kaltetzen duen materialetariko bat; izan ere, ezin da deskonposatu eta berekin amaitzeko izpi ultramore kantitate izugarri handi bat behar delako. Beraz, plastikoarekin amaitzea hainbeste kostatzen bada, ez al da ideia paregabea birziklatzea?